BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3693

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 6koa, Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak emateko Balorazio Batzordea eratuko duten kideak (Erein programa 2025).

2025eko apirilaren 8ko Aginduak (2025eko maiatzaren 2ko EHAA, 81. zk.) Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzen deialdia egin zuen 2025eko ekitaldirako, erakunde publikoei zuzenduta, «Landa-inguruneko oinarrizko zerbitzuetan inbertsioak» izeneko 2023-2027 NPEPEren esku-hartzearen barruan.

I. eranskineko 10. oinarriaren 1. apartatuan ezarri da Balorazio Batzordea eratu behar dela aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Horrez gain, adierazi da Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzako lantalde teknikoko hiru kidek eratuko dutela batzordea, eta kide horiek Zuzendaritza horretako zuzendariak izendatu behar dituela ebazpen bidez, zehaztuta nork beteko dituen idazkari- eta presidente-funtzioak.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Izendatzea nork osatuko duten Balorazio Batzordea, eta argitara ematea haren osaera. Hona hemen osaera:

Presidentea:

– Jose Luis Atutxa Lapatza (titularra).

– Juan Miguel Legarra Zabala (ordezkoa).

Kideak:

– Angeles Diez Diez, idazkari-lanetan jardungo du (titularra).

– Marta Atxaerandio Alesanco (ordezkoa).

– Iker Ortega Ruiz (titularra).

– Humberto Nogueira Gómez (ordezkoa).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 6a.

Landa Garapenaren eta Europar Politiken zuzendaria,
JOSEBA ANDONI TERREROS LUENGAS.